

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

162/2025 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa. Hutsik uztea Funtzio Publikoko Zuzendaritzari atxikitako Funtzio Publikoko Zuzendaritzako idazkariaren lanpostua (kodea: 1550.003) izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Diputatuaren otsailaren 26ko 100/2025 Foru Aginduaren bidez, 2025eko martxoaren 5eko ALHAOn (26. zk.) argitaratu zen Funtzio Publikoko Zuzendaritzako idazkariaren lanpostua (1550.003 kodea, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari atxikia) izendapen askeaz betetzeko deialdi publikoa.

Aipatutako Foru Aginduaren laugarren oinarrian eskabideak aurkezteko aurreikusitako epea amaitu da, eta ez da inolako eskabiderik jaso behar bezala eta epe barruan. Beraz, deialdia hutsik geratu dela adierazi behar da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Otsailaren 26ko 100/2025 Foru Aginduaren bidez Funtzio Publikoko Zuzendaritzari atxikitako Funtzio Publikoko idazkari lanpostua (1550.003 kodea) izendapen askeaz betetzeko deialdia hutsik uztea.

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR